

## 2 Urteko hezkuntza eskaintzaren azterketa 2023-2024 ikasturteko onarpen prozesurako

### Sarrera

Dokumentu honetan 2 urteko adinerako Hezkuntza Sailak planifikatutako hezkuntza eskaintza aztertu dugu. Maila horretan izen emango duten ikasleak 2021 urtean jaiotakoak dira (2 urteko mailan izen ematekoak, alegia.)

Datuak ikasleak onartzeko berme batzordetan lurralde ordezkariak helarazitakoak dira, eta eskolatzeko beharrak EUSTATetik atera dira.

Lehenik eta behin, azken urtetako jaiotza-datu batzuk azalduko ditugu.

### 1. Jaiotza-tasaren jaitsiera 2011-21

Jaiotza-tasak ziklikoak dira eta ziklo honek goia 2011n jo zuen. Horregatik jaso ditugun datuak 2011tik 2021era doaz. 10 urtetan, EAEn jaiotza-tasak % 32,69ko jaitsiera izan du, Araban ia % 35ekoa izanik.

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2011	21 180	3 429	10 687	7 064
2012	20 533	3 293	10 342	6 898
2013	19 118	3 099	9 732	6 287
2014	19 378	3 277	9 740	6 361
2015	18 851	3 159	9 331	6 361
2016	18 240	3 074	9 151	6 015
2017	17 076	2 961	8 522	5 593
2018	1 6 090	2 683	7 940	5 467
2019	15 418	2 565	7 720	5 133
2020	14 739	2 397	7 318	5 024
2021	14 257	2 368	6 957	4 932
D 2011-21	-6 923	-1 061	-3 730	-2 132
%	-32,69%	-30,94%	-34,90%	-30,18%

### 2. Eskaintza publikoa soilik duten udalerriak

EAEn Hezkuntza eskaintza duten 187 udalerritako 113k baino ez du eskaintza publikoa, eta horietatik 43 eskola txikiak dira. Beraz, argi gelditzen da hezkuntza sare publiko eta pribatuaren arteko taldak herri zehatzetan ematen dela, 10.000 biztanletik gorako herrietan bereziki. Horrela, erraz ondoriozta dezakegu hezkuntza eskubidea negozioa ez den herri txikietan, hezkuntza publikoak bermatzen duela eskubide hori.

	Udalerrri kopurua
Araba	19
Bizkaia	51
Gipuzkoa	43
Guztira	113

### 3. Eskaintza publikoa eta pribatua lehia dauden udalerrriak

Sare publikoko hezkuntza-eskaintzaren eta itunpeko sare pribatuaren artean lehia duten udalerrietan gertatzen dena aztertzen badugu, Gipuzkoan eta Bizkaian, baita EAEn orotara ere, **itunpeko eskaintza pribatua handiagoa dela nabarmentzen da.**

■ Eskaintza publikoa %45 baino txikiagoa    ■ Eskaintza publikoa %35 baino txikiagoa

	Udalerrria	Jaiotzak Eustat 2021	Eskaintza orokorra	Eskaintza publikoa ikaspostuak	Eskaintza itunpekoa ikaspostuak	Eskaintza publikoa %	Eskaintza itunpekoa %
<b>Araba</b>							
1	Agurain	51	79	54	25	% 68	% 32
2	Amurrio	60	129	54	75	% 42	% 58
3	Labastida	17	36	18	18	% 50	% 50
4	Laudio	101	147	72	75	% 49	% 51
5	Oion	34	61	36	25	% 59	% 41
6	Ribera Baja	12	43	18	25	% 42	% 58
7	Gasteiz	1 840	1 867	1102	973	% 48	% 52
<b>Bizkaia</b>							
1	Amorebieta	142	244	72	172	% 30	% 70
2	Balmaseda	40	61	36	25	% 59	% 41
3	Barakaldo	596	816	414	452	% 45	% 55
4	Basauri	197	254	154	100	% 61	% 39
5	Bermeo	99	136	36	100	% 26	% 74
6	Bilbo	2 136	2 239	990	1 169	% 48	% 52
7	Durango	176	255	72	183	% 28	% 72
8	Elorrio	47	72	36	36	% 50	% 50
9	Ermua	75	88	52	36	% 59	% 41
10	Galdakao	183	203	153	50	% 75	% 25
11	Gernika-lumo	103	172	54	118	% 31	% 69
12	Getxo	460	430	207	223	% 48	% 52
13	Gueñes	53	61	36	25	% 59	% 41
14	Leioa	234	417	126	291	% 30	% 70
15	Lekeitio	52	61	36	25	% 59	% 41
16	Markina	52	61	36	25	% 59	% 41
17	Mungia	117	158	72	86	% 46	% 54
18	Muskiz	37	81	45	36	% 56	% 44
19	Ondarroa	45	61	36	25	% 59	% 41
20	Ortuella	62	86	36	50	% 42	% 58
21	Portugalete	233	314	171	143	% 54	% 46
22	Santurtzi	296	316	144	172	% 46	% 54
23	Sestao	146	174	99	75	% 57	% 43
24	Sopela	103	122	72	50	% 59	% 41
25	Urduña	25	43	18	25	% 42	% 58
26	Valle de Trapaga	70	98	37	61	% 38	% 62
27	Zalla	48	61	36	25	% 59	% 41

28	Zamudio	10	118	18	100	% 15	% 85
----	---------	----	-----	----	-----	------	------

Gipuzkoa							
1	Andoain	96	122	18	104	% 15	% 85
2	Aretxabaleta	46	61	36	25	% 59	% 41
3	Arrasate	123	201	72	129	% 36	% 64
4	Azkoitia	88	104	54	50	% 52	% 48
5	Azpeitia	135	147	72	75	% 49	% 51
6	Beasain	103	165	90	75	% 55	% 45
7	Bergara	102	115	40	75	% 35	% 65
8	Donostia	1 174	1 641	620	1 021	% 38	% 62
9	Eibar	204	247	172	75	% 70	% 30
10	Elgoibar	91	86	36	50	% 42	% 58
11	Errenteria	203	301	126	175	% 42	% 58
12	Hernani	149	156	131	25	% 84	% 16
13	Hondarrabia	114	104	54	50	% 52	% 48
14	Irun	339	431	248	183	% 58	% 42
15	Legazpia	56	86	36	50	% 42	% 58
16	Lezo	36	61	36	25	% 59	% 41
17	Mutriku	32	54	36	18	% 67	% 33
18	Oiartzun	73	86	36	50	% 42	% 58
19	Oñati	92	111	36	75	% 32	% 68
20	Ordizia	102	104	54	50	% 52	% 48
21	Orio	51	68	18	50	% 26	% 74
22	Pasaia	96	127	36	91	% 28	% 72
23	Tolosa	147	226	54	172	% 24	% 76
24	Urnietta	32	61	36	25	% 59	% 41
25	Villabona	42	43	18	25	% 42	% 58
26	Zarautz	171	222	72	150	% 32	% 68
27	Zizurkil	20	44	26	18	% 59	% 41
28	Zumaia	66	112	62	50	% 55	% 45
29	Zumarraga- Urretxu	95	129	54	75	% 42	% 58

## 4. Eskaintza publikorik ez duten udalerriak

EAEko 8 udalerrietan ez dago eskaintza publikorik. Baina eragin eremuak handitu izanaren ondorioz, egun ez litzateke beharrezkoa izango udalerrri hauetan hezkuntza publikoa eskaintzea, eragin eremuan badagoelako. Hau da, **ikastetxe publikoak sortu beharrean eragin eremuak handitu dituzte.** (LOMLOE 109.artikulua). Hona hemen udalerrri horiek:

	Udalerrria	Jaiotzak Eustat 2021	Eskaintza itunpekoa
<b>Araba</b>			
1	La Puebla de Labarka	9	18
2	Iruraiz	8	13
<b>Bizkaia</b>			
1	Loiu	15	318
<b>Gipuzkoa</b>			
1	Anoeta	26	25
2	Ibarra	24	25
3	Irura	16	25
4	Lazkao	48	75
5	Usurbil	46	50

## 5. Itunpeko eskaintzak soilik herriko eskaria asetzen dituzten udalerrriak

Taula honetan azaltzen diren udalerrietako **itunpeko ikastetxeek herriko eskari guztia jaso dezakete.** Eskaintza publikorik ez duten udalerrriak ez ditugu sartu, soilik Loiu, honen eskaintza herriaren beharrekin zer ikusirik ez duelako.

	Udalerrria	Jaiotzak Eustat 2021	Eskaintza orokorra	Eskaintza publikoa ikaspostuak	Eskaintza itunpekoa ikaspostuak	Eskaintza publikoa %	Eskaintza itunpekoa %
<b>Araba</b>							
1	Amurrio	60	129	54	75	% 42	% 58
2	Labastida	17	36	18	18	% 50	% 50
3	Ribera Baja	12	43	18	25	% 42	% 58
<b>Bizkaia</b>							
1	Amorebieta	142	244	72	172	% 30	% 70
2	Bermeo	99	136	36	100	% 26	% 74
3	Durango	176	255	72	183	% 28	% 72
4	Gernika-lumo	103	172	54	118	% 31	% 69
5	Leioa	234	417	126	291	% 30	% 70
6	Loiu	15	318	0	318	% 0	% 100
7	Urduña	25	43	18	25	% 42	% 58
8	Zamudio	10	118	18	100	% 15	% 85
<b>Gipuzkoa</b>							
1	Andoain	96	122	18	104	% 15	% 85
2	Arrasate	123	201	72	129	% 36	% 64
3	Tolosa	147	226	54	172	% 24	% 76

## 6. Eskaintza nahikorik ez duten udalerrriak

Hemen ikusten ditugun datuei erreparatuz argi gelditzen da 0 kilometroko hezkuntzatik urruti gaudela. **Azpieskaintza hau posible da soilik beste udalerrietan gaireskaintza dagoelako.** Hau horrela mantentzen den bitartean baremoan 7 puntu emateak ez du eraginkortasunik izango.

	Udalerrria	Jaiotzak Eustat 2021	Eskaintza orokorra	Eskaintza publikoa ikaspostuak	Eskaintza itunpekoa ikaspostuak	Eskaintza publikoa %	Eskaintza itunpekoa %
<b>Araba</b>							
1	Legutio	22	18	18	0	% 100	% 0
<b>Bizkaia</b>							
1	Alonsotegi	24	18	18	0	% 100	% 0
2	Arrigorriaga	60	36	36	0	% 100	% 0
3	Berango	41	36	36	0	% 100	% 0
4	Derio	45	36	36	0	% 100	% 0
5	Dima	15	9	9	0	% 100	% 0
6	Getxo	460	430	207	223	% 48	% 52
7	Lemoiz	16	8	8	0	% 100	% 0
8	Urduliz	44	36	36	0	% 100	% 0
<b>Gipuzkoa</b>							
1	Astigarraga	97	90	90	0	% 100	% 0
2	Elgoibar	91	86	36	50	% 42	% 58
3	Hondarrabia	114	104	54	50	% 52	% 48
4	Lasarte Oria	156	96	96	0	% 100	% 0

## 7. Ondorioak

- Euskal hezkuntza-sistema sare publikoaren eta pribatuaren artean % 50ean banatzen dela dioen diskurtsoa bertan behera geratzen da bi sareen arteko konkurrentzia dagoen populazioak aztertzen ditugunean. Salbuespenak salbuespen, eskola publikoa galtzen ari da herri horietan. 2023-2024rako 2 urterako eskaintza ez da % 45era iristen udalerrri horietako 27tan. Gainera, 13 herritan ez da % 35era iristen, muturreko kasuekin, hala nola Zarautzen (% 32), Leioan (% 30), Durangon (% 28), Bermeon eta Orion (% 26), Tolosan (% 24), Andoainen eta Zamudion (% 15).
- Sare publikoaren eskaintza osoa % 50era iristen da; izan ere, 113 udalerritan eskaintza publikoa baino ez dago, eta horietatik 43 eskola txikiak dira.
- Itunpeko sare pribatuaren ezarpena handiagoa da hiriburuetan eta biztanlegune handietan, bereziki 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.
- Zortzi udalerritan ez dago eskaintza publikorik.
- Eskaintza publiko eta itundua dagoen lekuetan, itunpeko eskolak eskaintzen ditu ikaspostu gehien, eta eskola publikoari eginkizun subsidiarioa uzten dio. Egoera hori larriagotu egiten da itunpeko eskola-plazen gehiegizko eskaintza dagoen herrietan, behar diren plazen oso gaintetik, eta udalerriko eskolatze-premia guztiak ere gaintitzen dira kasu batzuetan.

- Ofiziozko azpieskaintza: eskola publikoa soilik duten udalerrietako eskaintza, esaterako, Berriz, Derio, Urduliz, Legutio, Astigarraga eta Lasartekoa, ez da iristen udalerrri horietako eskolatze beharrak asetzera. Ez dago plaza publiko nahikorik.
- Ofiziozko gain eskaintza: ituneko eskaintza pribatua %65etik gorakoa den udalerrietan lerroak soberan eskaintzen dira. Aldiz, eskola publikoaren eskaintza %65 baino handiagoa duten udalerrietan, ez dira soberakinak sortzen. Lehenengo kasuan, beharrezkoak ez diren plazak eskaintzen ari dira, hau da, itun gehiago, bete ez diren eskola-plaza libreak dituzten ikastetxe publikoak dauden bitartean, diru publikoa xahutzea eraginez.
- Apirilaren 7an alderdi politikoek gehiengoak adosturiko hezkuntza akordioaren 22. atalean honakoa dio: “plangintza arrazionalizatzea, eskariaren beharretara egokitutako eskaintza eginez, gehiegizko eskaintzak saihestuz eta eskaintzak urratuz, segregazioa areagotzeko aukera eman baitezake.” Itunak hori jaso arren, orain artekoari erreparatuz, argi dago Hezkuntza Sailak bestelakoa egiten jarraitzen duela.